301. zk.
Bigarren aroa
Maiatzak 15
2017

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Erreportajea
Bioterra
4. orrialdean

Elkarrizketa
Leontxo García
5-6. orrialdeetan



3- Erreportajea Anaka Kofradia
5- Elkarrizketa Xabier Lejarzegi, ENEEko zuzendaria
8- Kirolak Real Union
9- Kirolak Bidasoa Itzulia - Erlaitz Aiko Harria
11- Haurren Lanak Elatzeta HH
12- Gazteen lanak Toki Alai LH3
13- Gaztea Joseba Larratxeri elkarrizketa
14- Gazte infor
15- Agenda

Argazki lehiaketa

Idoia Bergara
Bide oso polita Talaia bidea.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Irun atzo Irun gaur

IUA: 15

Letxunborro Hiribidea

IUA: 25724

1983ko uztailaren 24ko Osoko Bilkuran, Kaleen Batzorde bereziaren proposamenez jarri zioten Letxunborro Hiribidea izena.

Anaka auzoko baserri tradizionaletako baten izenak, hedaduraz, inguratzen duen paraje guztiari izena eman dio. Goiko argazkian trenbideko langileak ikus daitezke, Letxunborro baserrian Manuela, Pedro Peña Loidi eta Nicolás de Letxunborrorekin. Argazkia XX. mendearen hasierakoa da.

1857ko nekazal eta ganadu aberastasun egoerari buruzko espedientearen arabera, 24 anega gari, 50 anega arto, 3 anega babarrun, 12 karga sagardo produzitzen zuen eta 2 zerri, 8 behi eta 4 txahal zituen (garai hartan Irungo baserri garrantzitsuenetako bat zen).

Lau urte beranduagoko lurralde aberastasun egoeran ikusten dugu nola Mª Ignacia Urrutia zen jabe, urteko errentan 1.200 erreal deklaratzen zuelarik, eta Jose Vicente Zuzuarregi eta Francisco Arretxe ziren maizterrak.

Iturria: José Monje.

Irungo kaleen izenak.

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGUISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Lehen urratsak eman ditu Anaka Kofradiak

2015ean sortu zen kultur eta gastronomia elkartea

> Kultura eta gastronomia uztartzeko asmoz elkartu ziren, 2015ean, Anaka auzoko zenbait lagun. "Elkarte bat sortzea pentsatu genuen, baina gutako bati bururatu zitzaion kofradia eratzea. Ez genekien non sartzen ari ginen", azaldu du Agustin Morate kofradiako idazkariak. Hogei kofrade inguru dira gaur egun. Anaka auzoko eta Irungo historiarekin, ohiturekin, musikarekin eta gastronomiarekin lotutako jarduerak burutzen dituzte.

Ogibideak babesteko helburuarekin sortu ziren lehen kofradiak, eta gaur egun, elikadurako produktuekin lotuta daude gehienak: Nafarroako zainzurien kofradia, Errioxako ardoarena, Asturiasko gaztena etab. Irunen ere badago adibidea: Bidasoko Izokinaren Kofradia. Haren aholkularitza jaso zutela onartu du Agustin Moratek: "Gure aitabitxiak izan ziren. Bidea erakutsi ziguten". Kofradietan ohikoak diren kapak prestatu zituzten, eta txapela gehitu zioten jantziari. Arlo legalean, beste edozein elkarteren parekoak dira kofradiak. Baina haien egiturak eta ohiturak dituzte.

Ohitura horiei jarraituz, kofradeen tronuratzea eta lehen kapitulua egin zituen Anaka Kofradiak 2016ko urrian. Gizonezkoak izan ziren tronuratutako kofrade guztiak, baina Moratek azpimarratu du haiena kofradia mistoa dela: "Ez dugu emakumerik, momentuz ez dugulako eskaerarik jaso". Gabriel Narzabal eskultorea hautatu zuten Maisu Handi. Anaka kofradiaren kapituluetan, besteenetan bezala, egitaraua zein izaten den azaldu du: "Inguruko kofradiei gonbidapena luzatzen zaie. Bakoitza bere jantziekin eta zutoihalarekin etortzen da, eta desfile ikusgarria izaten da. Kofradeen tronuratze ekitaldia egiten da ondoren, eta bazkari oparoa, bukatzeko".

Lehen kapituluan, hiru Ohorezko Kofrade izendatu zituen Anaka Kofradiak. Alde batetik, José Monje eta Sagrario Arrizabalaga artxibozainak. "Ordu asko pasa izan ditugu artxiboan, eta aitortza merezi zutela iruditu zitzaigun", argudiatu du Agustin Moratek. Hirugarren omendua, Ramón Girau izan zen. Gabriel Narzabalek eman du azalpena: "Medikua izan da, orain erretiratuta dago. Baina bere zaletasun handiena historia da. Aditua da gerra karlistetan eta napoleonikoetan, batez ere".

Beste kofradien kapituluetan ere parte hartu izan dute Anaka Kofradiako kideek. Hasieran, galdera berdina egiten zieten gehienetan: ea zein produktu ordezkatzen zuten. "Pixka bat bilatuta, Irungo tortillaren erreferentzia topatu genuen. José Luis Domenech-ek aipatu zuen lehen aldiz, 1930eko liburu batean", adierazi du Agustin Moratek: "Onddoak eta Baionako urdaiazpikoa daramatza. Errezeta bilatu genuen, eta hortik aurrera, Irungo tortillaren zabalkundean ere jardun izan dugu".

Logotipoko elementuak, azalduta

Dena den, Irungo tortilla babestea ez da Anaka Kofradiaren helburu nagusia. Logotipoan azalduta datoz, hain zuzen ere, kofradiaren jarduera eremuak. Laia da elementu zentrala. Izan ere, Gabriel Narzabal Maisu Nagusia da Pierre Lhande ibilbidean, Santiagoko bidegorrian kokatuta dagoen *Laiak* eskulturaren egilea. "Talde lanaren sinbolo dira laiak. Taldeka, lur kopuru handiagoa landu daiteke", argitu du Narzabalek. Harago doa kofradiak laiekin duen harremana. Udalak Puianako ekobaratzeak banatu zituenean, laiak erabiltzeko ikastaroa eman zuten, udalak antolatutako formazioen baitan.

Logotipoko beste elementu handia, Jaitzubian dagoen Urdanibia jauregia da. "Auzoko eta hiriko ondarearen parte da. Jauregiarekin batera, XVI.mendeko burdinola eta errota daude", nabarmendu du Narzabalek. Anaka Kofradiak eraikinen abandonu egoerarekin amaitzeko ahaleginak egin dituela baieztatu du: "Eusko Jaurlaritza da jabea. Konponketa batzuk egin ditu, errotaren teilatua, adibidez, baina oso motel doa dena. Jaurlaritzarekin eta udalarekin, biekin eduki ditugu bilerak, baina borondate politikoa falta da". Eraikinak eraberritzea eta bisita gidatuak antolatu ahal izatea proposatu dute, adibidez.

Logotipoko liburuak historia irudikatzen du, egurrezko koilarak gastronomia, eta sol klabeak musika. Txistularien, pifanoen eta danbor jotzaileen taldea du Anaka Kofradiak, Joxe Mari Irastorza musikari beteranoaren gidaritzapean. Zenbait errepresentazio historikotan jo izan dute, eta Euskal Jiran ere bai, adibidez. Aurtengo gurdia prestatzea izango da, hain zuzen ere, Anaka Kofradiaren hurrengo eginbeharretako bat.

Ekaineko lehen asteburuan helduko da Bioterra

Baskegur baso eta zur sektoreko elkarte profesionala izango da berritasun nagusia

Hamalaugarren edizioa beteko du aurten Bioterra produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien, eta kontsumo arduratsuaren azokak. Ekainaren 2tik 4ra izango da, Ficoba erakustazokan, Ficobak berak antolatuta. "Hiru pabiloiak erakusketariz beteko ditugu aurten ere", azpimarratu du Monica Alday azokako zuzendariak. 190 erakusketari baino gehiago hartuko ditu Bioterrak.

Gero eta handiagoa da Bioterrako bisitarien kopurua, eta gero eta zabalagoa eta heterogeneoagoa haien profila. Iaz antolatzaileek azaldu zuten ez dutela tamainari dagokionez handitzeko aukerarik. Horregatik, eskaintzaren kalitatea urtez-urte hobetzeko ahaleginetan dabil Bioterra. Aurten, Baskegur Euskadiko baso eta zur sektorea ordezkatzen duen elkarte profesionala izango da berritasun nagusia.

Pisu handiko sektorea da egurrarena EAEn, 13.000 lanposturen sortzaile zuzena izan baita. Zeharka, beste 7.000 lanposturen eragilea da. Iaz, 309 milioi euroko diru-sarrerak eragin zituen administrazio publikoarentzat. Oskar Azkarate Baskegurreko zuzendariak azpimarratu du Euskadi "forestala" dela: "Gure lurraren %54 basoa da. Europa mailan erratio altuenetakoa da hori".

Ekosistema zaintzeko ardura du

Ekoizpen jarduera zuzentzeaz gainera, baso-ekosistema zaintzeko ardura ere badu Baskegurrek: "Egurraren munduan beti egon izan dira gaizki ulertuak, eta gezurrak ere bai", adierazi du Azkaratek: "Zuhaitzak mozten dira, baina are gehiago landatu. Gainera, egurra kontsumitzea, askoz jasangarriagoa da, beste lehengai batzuekin alderatuta".

Geobat gunean egongo da Baskegur, geobiologia, bioeraikuntza, energia berriztagarriak eta kudeaketa ekologikoa bilduko dituen pabiloian. Beste bi gune egongo dira. Bioterra munduan, nekazaritza, ehungintza eta kosmetikarekin lotutako erakusketariak eta jarduerak egongo dira. Naturall Mundua, osasunari eta ongizateari eskainiko diote. 11.400 bisitari izan zituen iaz Bioterrak, eta aurten kopuru hori gainditzeko helburua dute antolatzaileek.

ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

BAKAILAOA DASTA EZAZU

RJ BACALAO
bacalaos SANTYMAR
la barajilla bacalaos
Egullor Bacalaos

XABIER LEJARZEGI, ENEEKeko zuzendari teknikoa:

“Gero eta jende gehiagok aukeratzen du ekologikoa kontsumitzea”

ENEEK Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua urtero izaten da Bioterra azokan. Antolakuntza Batzordeko kide da erakundea, gainera. Xabier Lejarzegi zuzendari teknikoa da, eta lehen eskutik ezagutzen ditu nekazaritza ekologikoaren sektorearen azken urteotako bilakaera, eta gaur egungo egoera.

Garatuz doa sektore ekologikoa, eta badirudi aurten ere bide ona daramala.

2016an ere, sektorea hazi egin da. Bai enpresa mailan, baita baserritarrei dagokienez ere. Azken horiek ikusi dute merkatuak produktu ekologikoa eskatzen duela, eta gero eta gehiago batzen zaizkigu.

Laborantza, abeltzaintza, badaude sektore ezberdinak. Zein da lan ildo nagusia, eskari gehien duena?

EAEN, tradizioz, ortugintza izan da nagusia. Salmenta aldetik, produktuarentzat irtenbide zuzenena eta argiena duen sektorea da. Abeltzaintzaren aldean, adibidez, abantaila dauka. Baserritarrak berak merkaturatu dezake produktua, zuzenean.

Operadore ekologikoak, baserritarrak edo enpresak, %8 emendatu dira 2016an, 2015arekin alderatuta. Kontsumoa ere handitu da?

Gero eta jende gehiagok aukeratzen du ekologikoa kontsumitzea. Baina eskaintza ere gero eta handiagoa da. Ikusten ari gara, salmenta kudeatzen duten banatzaileek gero eta presenteago daukatela bertako ekoizpen ekologikoa.

Berrikuntzari dagokionez, aurrerapenak egon dira?

Elikagai prestatuen inguruan, adibidez, ari dira proiektu berriak sortzen. Gaur egungo merkatuaren eskariari erantzunda, produktu berriak egiten ari dira, adibidez, inolako gehigarririk erabili gabe, modu naturalean egindako kontserbak.

Kontserbak ahalbidetzen du ez izatea soilik momentuko eta tokiko kontsumoa. Zer nolako garrantzia du esportazioak sektorean?

Badaude sektore batzuk, betidanik beste muga eta merkatu batzuei begira egon izan direnak: ardogintza, adibidez. Gero eta upategi gehiago daude, ekologikoa landu behar dutenak, merkatu jakin batzuetara ailegatu ahal izateko. Ardo ekologikoa, biologikoa edo organikoa ekoizten dute horretarako.

Erregulazioek gero eta gehiago bultzatzen dute produktu ekologikoa?

Ikusten da, erakundeen aldetik, kontratazio publikoetan, iraunkortasunaren esparru horretan, elikadura kontuan hartzen dela. Bertako produktua lantzeak, esleipen horietan, gero eta garrantzi handiagoa dauka. Hori eskertzekoa da. Guretzat, adibidez, oso garrantzitsua da jantoki kolektiboen esparrua, eskola jantokiena, adibidez.

EAEko lursail guztietatik, zein ehuneko ari da ekologikoan?

Batez beste, EAEko lursail guztien %2 ari da ekologikoan. Oso datu baxua da. Europa mailan %7koa da batez beste. Baina herrialde batzuetan, %20ra iristen da. Hala ere, ortugintzan, konkretuki, EAEko lursailen %25 inguru da ekologikoa. Datu hori nabarmentzekoa da.

LEONTXO GARCÍA, xakean aditua:

“Kirol guztien historian izan den lehiarik handiena eduki zuten Karpovek eta Kasparovek”

Mundu mailan oihartzun handien izan duen irundarretako bat da Leontxo García (Irun, 1956). Xake jokalaria izan ondoren, kazetari eta dibulgatzaile lanetan aritu da, lauki zuri-beltzen kirolarekin lotuta, gehienetan. Olinpiar Jokoak jarraitu ditu, eta politikarekin eta bidaiekin lotutako kazetaritza ere egin izan du. Irungo Almirante Arizmendi kalean du etxea, baina munduan zehar bidaiatzen ematen du urtearen zati handi bat. Apirilaren 27an, ordea, Manolo tabernan izan da, Bidashop merkatarien elkarteak antolatutako hitzaldi sorta estreinatzen.

Beste leku eta testuinguruetan hamarnaka xake aditu biltzeko gaitasuna izan badu ere, lagunarteko giroa sortu du Garcíak Manolo tabernan. Hitzaldi didaktikoa eman du, gainera, xakearen iraganari eta orainari buruz. Teoria zabalduenaren arabera, duela hamabost mende sortu zen xake jokoa, India eta Persia inguruan. Arabiarren eskutik iritsi zen Iberiar penintsulara, VIII.mendean.

Xake modernoa, Valentzian asmatu zuten, XVI.mendean. Damaren figura gehitu zioten, eta gainera, taulako indartsuena bihurtu zuten. “Arabiarren xakeak ez zuen emakumezko figurarik”, azpimarratu du Garcíak: “Esaten dute Isabel Katolikoaren omenez asmatu zutela damaren pieza”. Amerikara, eta mendebaldeko Europara, espainiarrek zabaldu zuten xakea. Leontxo Garcíak adierazi du ez duela ulertzen nola Espainiako agintariek ez dioten mendetako historia horri etekin handiagoa ateratzen: “Espainia markaren parte izan behar luke xakeak. Inteligentziarekin lotzen da xakea, eta lotura hori Espainiarekin egiten diren beste asko baino interesgarriagoa dela iruditzen zait”.

> “Espainia markaren parte izan behar luke xakeak. Inteligentziarekin lotzen da”

XVIII.mendearen amaieran, Parisko Café de la Régence mitikoan biltzen ziren Europako xake jokalari nagusiak, garaiko politikariekin eta intelektualekin batera. François-André Danican Philidor jokalariaren esaldi bat nabarmendu nahi izan du Garcíak: “Peoiak xakearen arima dira”. Xake jokoaren hasieran, peoiek ez dute garrantzirik, baina taularen amaierara iristen direnean, dama bilakatzen dira. Leontxo Garcíak gogorarazi du gizateriaren historiako momentu garrantzitsuenetako baten atarian bota zuela esaldia: “1789an izan zen Frantziako Iraultza. Frantziako gizarteko peoiak, eskubideak eta askatasunak bereganatzen hasi ziren”.

Gerra hotzeko lehia handiak

Jauzi handia egin du Leontxo Garcíak, XX.mendearen bigarren erdiara. 1970eko hamarkadan harrapatu zuen xakeak García, Fisher-Spaski lehiaren garaian. “Gerra hotz betebetean jokatu zuten elkarren aurka. Ameriketako Estatu Batuen eta SESB Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunaren arteko tentsioa ikaragarria zen”, gogorarazi du Garcíak. Sobietarrak oso harro zeuden haien xake jokalariekin. Munduko onenen %80 sobietarrak ziren. Kopuru horren azalpen bat eman du Leontxo Garcíak: “287 milioi biztanle zituen SESBek. Horietatik bost milioi xake jokalari federatuak ziren, eta 50 milioik xakean jokatzen zuten institutuetan, sindikatuetan, kuarteletan, adinekoen egoitzetan etab.”.

Boris Spaski sobietarra zen munduko txapelduna. Haren aurka lehiatzeko hautagaien txapelketa estatubatuar batek irabazi zuen: Chicagoko Bobby Fisherrek. “Autodidakta eta errebeldea zen”, zehaztu du Garcíak. Reykjavic-en jokatu behar zuten lehia, baina Fisherrek ez zuen joan nahi izan, sarien poltsa eskasa zela argudiatuta. Henry Kissinger kanpo ministroaren deia jaso zuen, Richard Nixon presidentearen izenean: “Mesede politiko gisa joan zedin eskatu zion, Spaskiri irabaztea propaganda arrakasta itzela izango litzatekeelako”. Beste dei bat ere egin zuen Kissingerrek, eta Jim Slagter britainiar aberatsarekin hitz egin zuen, sarien kopurua bikoiztu zezan eskatzeko. “Ez dakigu zerk konbentzituta, baina Fisher Islandiara joan zen, eta Spaskiren aurkako lehia irabazi zuen. Heroi baten moduan hartu zuten etxe zurian”, azaldu du Garcíak.

Kremlinean, sobietar gobernuan, bi hautagai zituzten Spaskik galdutako ohorea berreskuratzeko: Victor Korchnoi eta Anatoly Karpov. Bigarrena aukeratu zuten: “Askoz gazteagoa zen, eta profila egokiagoa zen. Uraletako familia langile batean hazia zen, eta jatorri umil hori asko gustatzen zitzaion gobernuari”. Hortik aurrera, Korchnoiren bidea ahalik eta gehien oztopatzen ahalegindu ziren, Sobietar Batasunetik ihes egitera behartzeraino. Suitzako hiritar zela, hautagaien zerrenda irabazi zuen, hala ere, eta Karpov Munduko Txapeldunaren aurka aritzeko aukera izan zuen. Filipinetan jokatu zuten partida hori, ia hiru hilabetez. Karpovek irabazi zuen, Korchnoiren zorionerako. “Beranduago jakin izan zen, KGB poliziak Korchnoi erailtzeko planak zituela, behar izanez gero”, aipatu du Garcíak.

SESBeko super heroi bilakatu zen Karpov. Gainera, hamar urtez, jokatu zituen partida guztiak irabazi zituen. Baina ez zekien, Moskuren hego ekialdean, hiriburutik 2.500 kilometrora, Gary Kasparov izeneko gazte bat xakean trebatzen ari zela: “Kirol guztien historian izan den lehiarik handiena eduki zuten Karpovek eta Kasparovek”. 1984 eta 1990 artean, bost aldiz lehiatu ziren, elkarren kontra, Munduko Txapelketa irabazteko. Guztira 144 partida izan ziren, 500 ordu baino gehiago, aurrez aurre. “Beste milaka ordu eman zituzten, bata bestearengan pentsatzen, era obsesiboan”, erantsi du Leontxo Garcíak. Sekulako presio politikoei aurre egin behar izan zieten Karpovek eta Kasparovek. 1991n desegin zen SESB. “Karpov, komunisten guardia zaharraren ordezkaria zen. Kasparov, berriz, Perestroika erreformaren ordezkari kulturala”, argitu du Garcíak. Haien arteko partida bakoitzean, milioika lagun egoten ziren irabazlea nor izango zen jakiteko zain.

Polgar ahizpak, xakea eta hezkuntza

Gizonezkoak izan dira protagonistak, orain arte. Baina emakumezkoak ere egon dira munduko xake jokalari onenen artean. Polgar ahizpa hungariarren kasua azpimarratu du Leontxo Garcíak. Esperimentu pedagogiko bat egin zuten haien gurasoek: “Biak irakasleak ziren. Etxean hezi zituzten hiru neskak. Ez ziren inoiz eskolara joan, azterketetarako izan ezik. Xakea irakasgai bat gehiago izan zen haientzat”. Emaitzak ikusgarriak izan ziren, bereziki Judit ahizpa gazteenari dagokionez. 2014an utzi zuen goi mailako lehia, baina munduko onenen artean egon den emakume bakarra da. Munduko zortzigarrena izatera heldu zen.

Ez da ohiko kasua, gaur egun, emakume bakarra baitago ehun onenen artean. Garcíak uste du gakoa hezkuntzan dagoela: “Nerabezaroaren aurretik, mutilek eta neskek interes maila berdina izaten dute xakearekiko. Baina hortik aurrera, neska gehienek utzi egiten dute. Herrialde askotan, etiketa maskulinoa baitu xakeak. Neska guztiek Polgar ahizpen moduan heziak izan balira, ehun onenen artean emakume asko egongo lirateke”.

Xakearen balio hezitzailearen defendatzaile sutsua da Leontxo García. Argudio trinkoa eman du: hamabost urte barru, gaur egungo haurren erdiak baino gehiagok, oraindik existitzen ez diren lanbideak edukiko dituzte. Gaur egun existitzen ez den teknologia erabiliko dute, oraindik existitzen ez diren arazoak konpontzeko. Testuinguru horretan, hezkuntzak arreta berezia jarri behar du aldakorra den errealitatera egokitzeko gaitasunean. “Xakeak primeran bat egiten du horrekin. Jokaldi bakar batek posizio osoaren ebaluazioa alda dezake. Egoera berrietara moldatu behar dute jokalariek, etengabe”, azaldu du Garcíak: “Ehun partida jokatu baldin badituzu, prozesu hori automatizatua duzu, eta horrek bizitzarako balio du. Horregatik bat egiten du horren ondo XXI.mendeko errealitatean”.

> “Jokaldi bakar batek posizio osoaren ebaluazioa alda dezake. Egoera berrietara moldatu behar dute jokalariek, etengabe”

XV mendeko historia du xakeak, baina sasoi betean dago, oraindik ere. “Internet bidez jokatu daitekeen kirol bakarra da. Futbolean edo tenisean ezin da, xakean bai. Momentu honetan milioika lagun egon daitezke xakean jokatzen. Islandiar bat korear batekin, edo hegofrikar bat kanadiar batekin”. Ordenagailuaren aurka jokatzeko aukera ere badago. Alabaina, oraindik ez da existitzen xakean bikain jokatzen duen makinarik. Datu argigarria eman du Garcíak, hori argudiatzeko: “Xakeko taula batean jokatu daitezkeen partida ezberdinen kopurua handiagoa da, unibertsoan dauden atomoena baino”. Xakearen mundu harrigarriak liluratuta dauka Leontxo García, eta bere pasioa hedatzen trebea da irundarra.

Igoera fasetik gertu gelditu da, berriro, Real Union

Zazpigarren tokian amaitu du liga

Zapore gazi-gozoarekin amaitu du sasoia Real Unionek. Iaz bezala, gertu izan du igoera faserako txartela. Zazpigarren postuan bukatu du azkenean liga, laugarren sailkatuarekiko bost puntuko desabantailarekin. "Sentsazio mingarria da, jakina. Sartu nahi genuen, igoera fasean lehiatu nahi genuen. Baina tira, lehiaketa horrelakoa da. Laurentzako tokia dago, eta kanpoan gelditu gara", adierazi du Asier Santana entrenatzaileak. Navalcarneron azken partida galduta, gainera, Errege Kopatik kanpo ere gelditu da Union.

"Talde guztiek izaten dituzte gorabeherak. Horrekin bizi gara"

Mikel Azkoiti, jokalaria

"Taldea behin eta berriro altxatzeko gai izan da"

Asier Santana, entrenatzailea

Bolada nabarmenak izan ditu 2016-2017ko Real Unionek. Presiorik gabe, baina itxaropenez ekin zion sasoiari. Izan ere, aurreko bi urteetan Aitor Zulaikarekin emaitza onak eman zituen taldearen zati nagusia mantendu zuen klubak, eta maila handiko jokalariak lotu zituen, gainera, Bigarren eta Lehen Mailan ere arituak: Ekhi Senar, Josu Hernáez, Joseba Arriaga eta Alain Eizmendi, besteak beste. Asier Santana entrenatzailearen gidaritzapean, ondo ekin zion ligako lehiaketari.

Lehen hilabeteetan, talde sendoa izan zen Real Union, defentsako lanean trebea. Abendura arte, bi partida besterik ez zituen galdu, 1-0eko emaitzarekin biak, Fuenlabradan eta Toledon. Lehen itzuliaren amaiera, ordea, kezkagarria izan zen, 3-0 eta 1-3 galdu baitzuen San Sebastian de los Reyesen etxean, eta Navalcarneroren kontra, Galen. "Talde guztiek izaten dituzte gorabeherak. Horrekin bizi gara", gogorarazi du Mikel Azkoiti atzelariak.

Eguberrietatik bueltan, baina, bolada txarrari jarraipena eman zion Real Unionek. Martxora arte, bi garaipen besterik ez zituen lortu talde txuribeltzak, neguko fitxaketek, Thaylorrek eta Dani Estradak, betez ere, beste bultzada bat eman zioten arren. Une gogorrak izan zirela onartu du Asier Santanak: "Egia da momentu txarra izan genuela, eta sufritu genuela. Dena den, azpimarratu behar da ez dela erraza horrelako egoera bati aurre egin eta erantzun indartsua ematea. Taldea behin eta berriro altxatzeko gai izan da". Garai horretan, Federazio Kopatik kanpo geratu zen talde irundarra, finalerdietan, Atlético Saguntinoren kontra. Beste kolpe bat izan zen, gertu izan baitzuen, 2015ean bezala, finala jokatzeko aukera.

Amaiera txarra izan du

Martxoaren 11n 1-0 irabazi zuen Unionek Toledoren kontra, eta erreakzio harrigarriari hasiera eman zion horrela. Lau garaipen lortu zituen segidan, eta urrun zirudien play off-eko lehian sartu zen, bete-betean. Azken hilabetean, ordea, behera egin du berriro, eta bi puntu besterik ez ditu atera, lau jardunalditan. Hala ere gertu egon da saria, eta jokalarien eta zaleen amorrua ulergarria izan daiteke. Taldearen ahalegina azpimarratu du, hala ere, Mikel Azkoitik: "Batzuetan hobeto aritu gara, besteetan okerrago, baina dena eman dugu beti".

Taldeak txalotzeko moduko jarrera izan duela uste du Asier Santana entrenatzaileak. Real Unionek "harro" egoteko moduko taldea duela baieztatu du: "Duintasun ikaragarria erakutsi dute". Aurtengoan, ordainketekin arazorik izan ote den, ez da azaleratu. Baina adierazpenek agerian uzten dute hainbat oztopo gainditu behar izan dituela 2016-2017ko Real Unionek. Klubaren egoera ezegonkorra gora-behera, emaitza onak izan ditu lehen taldeak azken hiru denboraldietan. Laugarren, bosgarren eta zazpigarren izan da ligan, hurrenez-hurren.

bertako igogailuak | ascensores
www.bertako.eus
✓ Irunen Igogailu Mantenurako Enpresarik aproposena
✓ 24 orduko benetako zerbitzua
✓ Piezak barne hilean 100 € - tatik
✓ Telefono linea barne
✓ Euskerazko zerbitzua
✓ Eskatu zure aurrekontua 943903450

Estu-estua izan da Bidasoa Itzulia

Azken uneraino sufritu du Samitierrek, txapela janzteko

Lehen bi sailkatuek lau etapetan egindako postuak aztertu behar izan dituzte epaileek, Bidasoa Itzuliko azken maillot horia banatzeko. Lizarte taldeko Sergio Samitier aragoiarrak eraman du azkenean, baina denbora berdinarekin amaitu du Colpack taldeko Matteo Sobrero italiarrak. Technics-eko Julian Mertens belgikarrak osatu du podiuma.

Igantziko Irrisarri Land-en jantzi zuen maillot horia Sergio Samitierrek, lehen etapa irabazita. Tropela bilduta iritsi zen azken mendatera, baina Igantziko malda gogorretan Lizarteko aragoiarra nagusitu zen. Zazpi segundo galdu zituen Matteo Sobrerok Irrisarri Land-en, baina diferentzia berdina atera zion Samitierri, bigarren etapan. Italiarra izan zen lehena Hondarribiko Harresilandan, Jaizkibel mendatea gainditu ondoren. Samitierrek ez zuen lidergoa galdu, sprint-ean ahaleginduta, bigarren tokian sartu baitzen helmugan.

Bidasotik urrun joan zen hirugarren etapa, Orion izan baitzituen irteera eta helmuga. Gipuzkoako errepideetan zehar ibili eta gero, multzo handi bat heldu zen helmugara. Caja Rural taldeko Xavier Cañellas balearrak irabazi zuen etapa. Sailkapen nagusian, ordea, ez zen aldaketarik egon. Hortaz, laugarren eta azken etapak erabaki zuen itzulia, larunbatean, maiatzaren 13an. Etapa labur bezain gogorra da Bidasoako azkena, Aritxulegi, Agiña eta Erlaitz gainditu behar izaten dituztelako txirrindulariek, 80 km baino gutxiagoko ibilbidean.

Taldekideen lana, erabakigarri

Hainbat eraso jaso zituen Samitierrek Erlaitzeko aldapetan, eta gogotik sufritu behar izan zuen. "Taldekideengatik izan ez balitz, han egongo nintzatekeen oraindik", adierazi zuen Samitierrek, podiumera igotzerakoan. Castrillo Lizarteko taldekidearen laguntza funtsezkoa izan zen, Erlaitzek ez zezan Samitier hondoratu. Hamar laguneko multzoa iritsi zen, azkenean, Colon ibilbidera. Sprint-ean, Marco Negrente italiarra izan zen azkarrena.

Sobrerok bi postuko errenta lortu behar zuen Samitierrekiko, itzulia irabazteko. Bakarra atera zion, ordea. Beraz, Lizarteko aragoiarrak jantzi zuen txapela. "Etapa guztietan estutu naute aurkariek", aitortu zuen. Lehen etapan lortutako maillotari eustea lortu du, hala ere, eta beste urrats handi bat eman du, txirrindularitza profesionalera bidean.

Aiako Harrian hirugarrenez irabazi du Egeak

Aritz Egea urretxuarra izan da azkarrena, gizonezkoetan, Erlaitz-Aiako Harria mendi maratoi erdian. Hirugarren aldiz jantzi du txapela, Erlaitz mendi elkarteak antolatzen duen 22km-ko mendi lasterketan. 1:44ko denbora behar izan du ibilbidea osatzeko, eta hamar minutuko aldea atera dio Jon Ugalde andoaindarrari. Hassan Ait Chaouk osatu du podiuma.

Emakumeetan, Maite Maiora mendaroarra izan da onena, 2:04ko denborarekin. Abadiñoko Oihana Azkorbebeitia gelditu da bigarren, eta Alizia Olazabal irundarra igo da podiumeko hirugarren postura. Lehenengoak baino hamabi minutu gehiago behar izan ditu Olazabalek, ibilbidea osatzeko. Maiatzaren 14an izan da Erlaitz-Aiako Harria mendi maratoi erdiaren zazpigarren edizioa.

Ez da denda arrunta

Bertako elikagaien saltokia zabaldu du Labore Txingudi kontsumo kooperatibak

Gaztetxe hitza labur geratu da Lakaxita gune autogestionatuarentzat. Ekonomia sozialaren bilgune nagusia da, gaur egun, Irunen. Hiritik At! arkitektura sozialeko elkarteak bertan du egoitza, eta Aldatsa eta Bare Alaia baratze kooperatiben banaketa gunea ere bada. Maiatzaren 13tik aurrera, gainera, elikagaien saltoki bat dago bigarren solairuan. Labore Txingudi elikadura kontsumo elkarte berriak jarri du martxan.

Elikagaiak ditu apaletan txukun kokatuta, haien jatorriaren eta salneurriaren berri ematen duten etiketez lagunduta. Ohiko baskula eta kutxa ere baditu. Ez da denda arrunta, hala ere. Eskualdean elikagaien ekoizpena eta kontsumoa eraldatzea da Labore Txingudiren helburua. “Elikadura burujabetzaren bidean, beste urrats bat ematea, azken finean”, adierazi du Andoni Egia bazkideak. Langile bat liberatu du elkarteak, denbora erdiz, eguneroko lan karga aurrera eramateko. Baina bazkideek erabakiko dute zer eta nola salduko den dendan. Bertako ekoizleekin eta banatzaileekin eraiki duten lankidetzari esker, gertuko produktuak eskainiko dituzte dendan.

Labore Txingudirena ez da bio denda bat izango. Gertuko produktuak eskaintzea da lehentasuna: Urruñako gazta, Anizko esnekiak, Hernaniko kontserbak etab. aurki daitezke, momentuz, dendan. “Irizpide nagusia izan da ekoizlea ahalik eta gertukoena izatea”, aipatu du Dornaku Lantz Labore Txingudiko langileak. Berak izango du eguneroko denda kudeatzeko ardura. Azaldu du, aurrera begira, ekoizleek produktu ekologikoaren alde egin dezaten bultzada ematea dela haien asmoa. Oraingoz, gertukotasuna lehenetsi dute.

Freskoak ez diren produktuak eskainiko dituzte

Lantzek azaldu du ekoizleen ezagutza eta haiekiko harremanak estutzea dela Labore Txingudiren beste helburu nagusietako bat: “Asko urrundu gara ekoizleengandik. Gure gurasoek eta aiton amonek ezagutza handiagoa zuten. Adibidez, Irunen eztia egiten da, baina orain ez da garaia, abuztura arte itxaron beharra dago. Nik orain arte ez nekien hori”. Produktu batzuen kasuan, Euskal Herritik urrun bilatu behar izan dituzte, ez baitira hemen ekoizten. Kafea Nikaraguakoa da, adibidez, eta azukrea, Kubakoa. “Bitxia da, hain urrutiko gauzak nola kontsumitzen ditugun egunerokoan. Haiek lortzeko, ekonomia sozial eta eraldatzaileko sare batetara jo dugu”, argitu du Dornaku Lantzek.

Momentuz, freskoa ez den produktua eskainiko dute dendan, Lakaxita guneak ez duelako produktu freskoa modu egokian mantentzeko aukera ematen. Hortaz, zerealak, lekaleak, irinak, eztia, azukrea, kafea, tea, kontserbak, esnekiak eta arraultzak topatu ahal izango dira, besteak beste, Labore Txingudiren dendan. Barazkiei dagokienez, kontuan hartu beharra dago Aldatsa eta Bare Alaia baratze kooperatibek ere Lakaxitan dutela topagunea, eta horietan parte hartzeko aukera izango dutela Labore Txingudiko bazkideek ere. “Erabat bateragarriak dira proiektuak”, azpimarratu du Lantzek.

Sukaldeko lan handia egin behar izan dute

Duela urte bete eman zituen lehen urratsak Labore Txingudiko lehen talde eragileak. Berako Bidaziren eta Labore Oarsoren erreferentziak kontuan hartuta, Bidasoan antzeko zerbait martxan jartzeko aukera ikusi zuten. Azaroaren 19an egin zuten aurkezpen batzarra, eta babarrunada ondoren, Irungo EKT elkartean. Lan komunikatibo handia egin behar izan dute, bazkideak erakartzeko. 50 bazkide inguru dira momentu honetan, baina denda irekita, jende gehiago erakarriko dutela uste du Dornaku Lantzek: “Jendea nahasi egiten da, eta ez du ongi ulertzen zer den. Dendara etortzera gonbidatuko nituzke, produktuak ikus ditzaten. Ez daitezela lotsatu, etor daitezela eta galde dezatela nahi duten guztia”.

Bazkideen inplikazioa funtsezkoa izan da Labore Txingudiren sorreran. Lakaxita guneko denda eraikitzeko, 10.000 euroko inbertsioa egin behar izan dute. Hasieratik parte hartu nahi izan duten bazkideei, urteko kuota aurreratzeko eskatu diete, Labore Txingudi martxan jarri ahal izateko. Proiektua bideragarri izan dadin, 100 bazkide behar dituztela aurreikusi dute. Gehienez, 200 lagunen beharrei erantzuteko ahalmena dutela uste dute. Hortik gora, beste planteamendu bat beharko luke proiektuak.

Hemendik aurrera, bazkide bakoitzak 60 euro ordaindu beharko ditu urtean, 5 euro hilabetean. Inplikazio maila, bazkideek beraiek erabakiko dutela baieztatu dute. Andoni Egiak bere parte-hartzea argudiatu du: “Gure eguneroko beharrak modu kolektibo eta horizontalean eraikitzeko aukeran sakondu behar dugula iruditzen zait. Gure diskurtsoetako planteamenduak materializatzeko modu egokia dira Labore Txingudiren moduko proiektuak”. Bazkide egiteko eta proiektuaren gaineko informazioa jasotzeko, ondorengo bideak daude eskura: laboretxingudi.org, laboretxingudi@gmail.com, eta Facebook eta Twitter kontuak. Momentuz ez dute erakundeen babesik eskatu, baina eskualdeko udaletara eta Bidasoa bizirik garapen agentziara joko dutela aurreikusi dute.

Labore Txingudi dendako ordutegia:

Astelehena: 16:00-20:30.

Osteguna: 16:00-20:30.

Ostirala: 9:00-14:30.

Elatzeta HH

Toki Alai LH3

ZAPATA ZAHARRA ETA JOSU XAGUA

1-Historio hau kontatzen
ni hementse nago
zapata zahar hau berriz
zintzilikan dago.
Santiago kalean
fondoan harago,
oso triste dago ta
askoz e(re) zaharrago .

2-Egun batean Josuk
zapata aurkitu zuen,
zapatak jarri zion
Josu bezala izen.
Josu gonbidatutu zun
lotara gelditzen,
eta arrez geroztik,
handik geratu zen.

3-Bi urte daramate
elkar aguantatzen
baina ere bizirik
daudela ospatzen.
Gaua iristen denean
asko disfrutatzen
beti lokartzen dira
izarrak zenbatzen.

4-Behin otu zitzaien
Londresen paseatzea
edota egun batean
Parisen ibiltzea.
Gustatuko zitzaien
Hong-Kong bisitatzea
biek nahi dutena da
mundua ezagutzea

Uxue

Muguruza

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

S.R.A. andereari jasoa (1959 - VIII-3).

(El Bidasoa, 1959-VIII-8)

Sansonek ibiltzen zittuen bi arri koxkor portziluan

Sanson Pasaian ibiltzen zen denboran, ibiltzen zittuen bi arri koxkor portzilluan, eta tira zittuen itsasora Endaiara, eta geldittu zirán itsasuan eskiñan.

Eta orrégatik esátentzaye Sanson arriyak.

<Guk esáten´ttugu komeri farrágarriyak>

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

JOSEBA LARRATXE "JOSEVISKY":

"Marrazkia ez da luzitzeko erabili behar, istorio bat kontatzeko baizik"



Lagun giroko masterclass batekin amaitu du Joseba Larratxe "Josevisky" marrazkilariak (Irun, 1985) Martindozenea Gaztelekuan eskaini duen erakusketa. Argia, Gaztezulo eta Xabiroi aldizkarietan parte hartzen du Larratxek, Yurre Ugarte, Pako Aristi edo Asisko Urmenetaren mailako idazleekin lan egin izan du, eta liburuak ilustratu ditu. Waking izenburua duen komiki laburra marraztu du Vértigo argitaletxe estatubatuarrarentzat, eta *Eneko Aritza, lehen errege baskoia* komikia sortu du, Angel Rekalderekin elkarlanean, Nabarralde kultur taldearentzat. Larratxeren lan ugari bezain anitzaren zenbait adibide besterik ez dira.

Txikitatik izan zara komikien eta marrazketaren zale. Zergatik ez zinen Arte Ederrak ikastera animatu?

Hemezortzi urterekin ikasketak aukeratu behar izan nituenean, zalantza handiak eduki nituen. Beti iruditu izan zait momentu horretan gazteegiak garela erabakitzeko gure bizitza zer izango den. Nire etxean arkitektoak dira, eta hori zen etxean beti ikusi izan nuena. Arte Ederrekin alderatuta, arkitektura gauza ukigarriagoa iruditu zitzaidan momentu horretan, eta hortik jotzea erabaki nuen.

Ordurako, komiki lehiaketak irabazitakoa zinen.

Gogoan dut lehen komikia 9 urterekin marraztu nuela, gordea daukat oraindik. Jurassic Park eta dinosauroak zeuden modan orduan, eta horixe egin nuen. Komikiko marrazkiak ondo zeuden, baina ez zen ezer ulertzen. Hori izan da aurrerantzean izan dudan lanik handiena, ideiak transmititzen ikastea. Nire ustez, marrazkia istorio bat kontatzeko erabili behar da, ez luzitzeko.

Nerabezaroan, Euskal Herriko komiki lehiaketa guztietan parte hartzen hasi nintzen. Gehienetan, euskarazko akzesita irabazten nuen. Behingoz lehen sari bat irabaztea lortu nuenean, lehiaketak utzi nituen.

Arkitektura ikasten ari zinela, komunikabideetan kolaboratzen ibili zinen.

Berriaren Matraka gazteentzako gehigarrian hasi nintzen tira komikoak egiten. Horrek diziplina hartzeko balio izan zidan, bi astean behin zerbait egin behar nuelako, nahiz eta beti inspirazio bera ez eduki. Nabarra aldizkarian ere hasi nintzen orduan. Azkenean, momentu batetik aurrera, nire ofizio bihurtu denak ikasketak oztopatu zizkidan. Hamar urte eman nituen Arkitektura ateratzeko. Amaierako proiektuarekin lau urtez egon nintzen, sekulako lana eman zidan. Marrazketa lanek garrantzi handia hartu zuten niretzat, eta ez zidaten aurrera egiten uzten. Azkenean, gogorra izan zen gogorik gabe Arkitektura karrera bukatu behar izatea.

Komunikabideekin, argitaletxeekin eta idazleekin lan egin izan duzu, besteak beste. Alde handia dago batetik bestera?

Oso lan mota ezberdinak dira, baina guztien muinean sormena dago, eta batez ere, ideia bat komunikatzea. Baina argi dago, komiki bat edo ilustrazio lan bat oso ikuspuntu ezberdinetatik abordatu behar direla. Ahal izango banu, komikiak bakarrik egingo nituzke, hori baita benetan mugitzen nauena eta betetzen nauena. Gertatzen dena da Euskal Herrian oraindik ezin dela komikigintzaz bizi. Horregatik, marrazketarekin zer ikusia duen edozer egiten ari naiz.

Zure sormena mugatzen al du enkarguen arabera lan egiteak?

Oso moldagarria naiz. Badaude marrazkilariak okerrago pasatzen dutenak, haien estiloa oso-oso markatua delako. Nik dudan puntu indartsuena da nire estiloa moldagarria dela. Horrek lan ezberdin asko egitea eta bizirautea ahalbidetzen dit.

Enkarguen arabera, dokumentazio lan handia egin behar izaten dut. Erdi Aroko istorio bat kontatzeko, adibidez, sekulako lana egin beharra dago. Marrazkigintzaren alde ezkutuetako bat da hori.

Zerk eragin du gehien, zure estiloa eratzeko prozesuan?

Nire estiloarekin harreman handia du aukeratu dudan erremintak. Tinta pintzela erabiltzen dut gaur egun, Japoniarrek kaligrafiarako baliatzen dutena. Pintzel normal bat da, errotulagailu bat balitz bezala, etengabe tintaz bustitzen dena. Pintzelarekin, trazua inperfektua da, baina oso naturala. Nire trazua ez ezkutatzea erabaki dut.

Ez zait gustatzen nire estiloa errealista dela esatea, baina ez naiz marrazki bizidunen estiloko esajerazioaren zalea. Nahiz eta figurak karikaturizatu, fisika bat edukitzea gustatzen zait: hiru dimentsioak, perspektiba... Horrek nire ikasketekin zer ikusia izan dezake.

Komunikabideetan, gero eta gehiago ikusten dira ilustrazioak.

Badago joera bat, egia da, espero dut moda hutsa ez izatea. Nire teoria da argazkia oso gauza demokratikoa bihurtu dela: denok daukagu argazki kamera mugikorrean, eta etengabe aritzen gara argazkiak ateratzen. Horregatik, diferentziatzearen bila, komunikabideak marrazkigintzara bueltatu dira. Eta bueltatu esaten dut, argazkigintzaren aurretik, egunkarietan marrazkiak egiten zirelako. Eman dezakeen balio erantsia gero eta gehiago baloratu dezaten nahi nuke.

Erakusketak, hitzaldiak eta tailerrak ezinbesteko osagarri dira zure lanean?

Beti gustatu izan zait nire medioaren alde egitea. Komikigintza nahiko gutxietsia izan da beti, eta ni prest nago haren alde pedagogia egiteko. Dibulgazio grina horrekin lotura handiagoa du arlo horretan egiten dudanak, gehigarri ekonomikoarekin baino.

ATZERRIKO TITULUEN BALIOZKOTZEA ETA HOMOLOGAZIOA

Gradu akademikoarekiko homologazioa da atzerriko unibertsitate-titulu bat aintzat hartzeko tramiteak arintzeko modurik egokiena.

Sistema honi esker, atzerriko unibertsitate batek emandako titulua dutenek lortutako ikasketa-maila Espainiako unibertsitate mailekin homologatzea (diplomatura, lizentziatura, masterra edo doktoretza). Modu horretan ekiditen da kasu askotan titulu ofizialen katalogoko titulu zehatz batekin homologatzeak dakarren prozesu konplexua.

Unibertsitarioa EZ den titulazio bat homologatzeko, harremanetan jarri behar duzu erakunde honekin:

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Departamentua. Gobernu Zentraleko Gipuzkoako Ordezkaritordetza
Andia k., 13 - Donostia
943 022 010 /12

Unibertsitate titulu bat homologatzeko:
Eusko Jaurlaritza
Pio XII. plaza - 6 . Donostia - 943 989 300 / 02

KANDELAK EGITEKO TAILERRA

Zer?
Gaur egun, kandelen funtzioa apaingarri hutsa izatea da. Geure kandelak sortuko ditugu, nahi dugun kolorea, testura, itxura eta usaina emanez. Gel gardenezko kandelak ere egingo ditugu, haien bestaldean ikusten diren objektuekin jolasteko.

Non: Martindozenea Gaztelekuan..

Noiz? Maiatzak 23.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

ASEXORATE!

ASEXORATE

Ba al duzu maitasun harremanei, sexu harremanei, antisorgailuei, haurdunaldia borondatez eteteari... buruzko zalantzarik?

Hauxe da zure unea. Ez zaitez moztu !!! eta " Egin zure galdera"

IGaztek gune bat ireki du gazteok sexualitatearen inguruan nahi duzuen guztia plantea dezazuen: Sexuari eta harremanei buruz (indibidualak, bikotekoak...) dituzuen zalantzak, hausnarketak, zailtasunak edo jakin-minak.

" Egin zure Galdera ":
- www.irun.org/igazte webaren bidez
- e-mailez: igazte@irun.org
- telefono hauetan: 943 505 444 edo 943 505 440
- whatsappez: 607 771 173
- edo edozein unetan zure galdera Igazteko Asexorate txokoko kutxan sartuz

Eta bestela, hilaren azken ostiraletan, 17:00etik 19:00era, Itsaso Carrizo psikologo-sexologoak zure zalantza guztiak erantzungo ditu IGazten bertan, zuzenean.

Ez zaitez moztu !!! Konfidentziala eta doakoa.

A S E X O R A T E!

AZTERKETAK !!! IKASKETA GELAK ORDUTEGIA LUZATZEN DU

Azterketa garaia heltzear dela eta, maiatzaren 13tik ekainaren 25era CBA Liburutegiak bere ikasketa gelaren ordutegia zabalduko du.

Ordutegia:

- Astelehenetik ostiralera: 9:00 - 20:00

- Larunbatak: 9:00-13:00 / 15:00-20:00

- Igandeak: 9:00 - 13:00

Maiatzak 16

Zer? Gipuzkoako Bertsozaleen Elkarteak, Irungo Eskolek eta Irungo Udalak antolatua.

Eguzkitza eta Dunboako ikasleak izango dira protagonista, Ander Lizarralde eta Jokin Labayen bertsolari irakasleekin batera.

Non? Amaia KZ-n

Ordua? 18:00etan

Prezioa: Doan.

Maiatzak 16 maiatzak 28ra

Zer? Makila elkarteak antolatutako margo erakusketa.

Non? Laboral Kutxa Kolon pasalekua, 13.

Ordutegia? Astelehenetik larunbatera: 18:00-21:00 / Igandeak eta jaiegunak: 11:30-13:30.

Prezioa? Doan.

Ekainak 3ra arte

Zer? Bigarren aldiz erakusgai jarriko da "Rudy margolari nafarraren" erakusketa bat Kabigorri Ateneoan.Margolari autodidakta, Berakoa da jatorriz eta Irunen bizi da. Guztira 14 obrak eratzen dute erakusketa. Estilo errealistakoak dira, Bidasoko Eskola Zaharraren berezko estilokoa, gure inguruko paisaiekin, Nafarroakoak eta Gipuzkoakoak nagusiki.

Non? Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoa

Ordutegia? Ostegunetik larunbatera 19:00etatik aurrera / igandetan 17:00etatik aurrera

Prezioa: Doan.

Maiatzak 18

Zer? Irungo Mendizaleak-ek beteranoentzat antolatutako irteera: Aralartik itzulia (Lizarrusti - Uharte Arakil).

Informazio gehiago? Irungo Mendizale elkartean: asteartetan eta ostegunetan 19:00-21:00 edo www.irungo-mendizaleak.com web orriaren bitartez.

Prezioa? Doan.

Maiatzak 20

Zer? Mintegia: armiarmen biologia eta identifikazioa Txingudiko paduretako inguruan. Hizlaria: Alberto de Castro

Ornogabe talde honen biologia ezagutzeko mintegi teorikoa. Landa irteera bat burutuko da espezie arruntenak identifikatzeko.

Non? Txingudi ekoetxean. Pierre Loti Ibilbidea - PLAIAUNDI.

Ordutegia? 10:00-13:00.

Izena emateko? Aldez aurretik izena ematea Txingudi Ekoetxean.

Pre-

Enpleguaren astea

Noiz? Maiatzaren 22an.

Non? Ficoban.

Prezioa? Doan.

Antolatzailea? Bidasoa bizirik.

Guztira 30 entitate joango dira maiatzaren 22an FICOBAra, hautatze elkarrizketak egiteko. 102 eskaintza egongo dira, 160 lanposturentzat.

Bestalde, Sarbide libreko gunea prestatuko dute FICOBAko beheko solairuan. Bertan, enplegua kudeatzen duten 30 entitatek enplegua lortzeko dituzten eskaintzak eta zerbitzuak aurkeztuko dizkiete, hurbiltzen direnei. www.elespazio.com web gunean kus daiteke zeintzuk izango diren enpresa horiek. Interesa duten pertsonek curriculum vitae-a eraman beharko dute, eskura.

Hamalau urte bete ditu Anakako Eguneko Zentroak

Adinekoen bizi kalitatea hobetzeko baliabidea da, haien bizitokia aldatzeko beharrik gabe

Beheko solairuan dago Caser Residencial Anaka egoitzako Eguneko Zentroa. 2003ko maiatzaren 11n ireki zituen ateak, hamalau urte egin ditu, beraz. Profesionalen lan talde zabala du zentroak, adinekoei arreta pertsonala eta integrala eskaintzen diena. Beti ere, erabiltzaileen eta haien familien beharretara egokituta.

Eguneko 365 egunetan zabalik dago zentroa, asteburuak eta jai egunak barne, 8:30etatik 19:30etara. Erabiltzaileak astelehenetik ostiralera, asteburuetan bakarrik, edo egunero joan daitezke. Aurrekontu pertsonalizatuak ere egin daitezke, Eguneko Zentroa orduka edo egun solteetan erabiltzeko.

60 erabiltzailerentzako lekua dute instalazioek. Horietatik, 34 plaza Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kontzertatuak dira, eta beste 24, pribatuak. Azpimarratzekoa da Irun eta Hondarribia hirietarako garraio zerbitzu egokitua eskaintzen duela Eguneko Zentroak. Erabiltzailea etxeko atean jasotzen dute, eta bertan uzten dute, bueltan.

Adinekoen bizi kalitatea hobetzeko baliabide bikaina da Eguneko Zentroa, bizitokia aldatu eta haien ingurutik atera beharrik gabe. Asko izan daitezke Eguneko Zentroa erabiltzeko arrazoiak: zaintzailearen karga arintzea, adinekoaren harremanak sustatzea, aktibo mantentzea etab.

Behar dituzten arreta eta zaintzak jasotzera, beste adinekoekin harremantzera eta jarduera programa zabalarekin gozatzera joaten dira erabiltzaileak Eguneko Zentrora: eskulanak, tailerrak, musikoterapia, gimnasia, prentsa irakurketa, adimen estimulazioa, bingoa, mahai jokoak, kantuak, ibilbideak eta irteerak etab. Uztailan eta abuztuan zehar, bainu egokituak hartzen dituzte Hondarribiko Hondartzan.

Betharramgo egoitzan ere Eguneko Zentroa du Caserrek, ezaugarri berdinekin, zerbitzu berdinak eskaintzen dituena. 2014az geroztik, Pirinio Atlantikoetako departamentuarekin kontzertatuta daude biak. Horrela, mugaz beste aldeko adinekoak ere erabiltzaile izan daitezke, bai modu pribatuan, baita diruz lagunduta ere, APAren bitartez.

Zerbitzu nagusiak:

-Sukalde propioa, dieta egokituarekin (gosaria, bazkaria, askaria eta afaria aukeran).

-Arreta medikoa.

-Bainugela geriatrikoa.

-Errehabilitazioa eta fisioterapia.

-Psikologia eta lan soziala.

-Jolas eta mantentze jarduerak.

-Ibilaldiak, kanpo jarduerak eta irteerak.

-Asteroko txostena, erabiltzailearen egonaldiari buruz.

Besteak: farmazia, nutrizionista, ile-apaindegia, podologia, kontsultetara eta kanpo gestioetara laguntza, erlijio zerbitzua, kafetegia, terraza zabala.

Martinak 80 urte ditu, eta bost hilabete inguru daramatza Anakako Eguneko Zentroan. Plasenciakoa da (Cáceres) sortzez, baina semearen etxean bizi da, Hondarribian. Astelehenetik ostiralera, Eguneko Zentroan egoten da, 8:00etatik 18:00etara.

Zergatik hasi zinen Eguneko Zentrora etortzen?
Nire proposamena izan zen. Gustura nago semearen etxean, baina sentitzen dut intimitatea kentzen diedala, eta haiek niri. Hala ere, dagoeneko ez naiz bakarrik bizitzeko gai.

Anakako Eguneko Zentrora etortzen zen lagun bat ezagutzen nuen, Pilar. Aspaldi ezagutzen dugu elkar, duela 50 urte. Horregatik erabaki nuen hona etortzea.

Zer egin ohi duzue Eguneko Zentroan?
Margotu, kontuak egin, letra-zopak etab. Niri gehien gustatzen zaidana, puzzleak egitea da. Autobusez ekartzen naute, etxera etortzen dira bila.

Harreman ona duzu kideekin eta langileekin?
Bai, oso ona. Gutxirekin konformatzen naiz, eta ahal dudan neurrian laguntza ematen ahalegintzen naiz.

Jaten ere ematen dizuete.
Gosaria, bazkaria eta askaria. Batzuetan ematen digutena gustatzen zait, eta gehiago jaten dut. Horrenbeste gustatzen ez zaidanean, gutxiago. Orokorrean dena gustatzen zait, dena den, lekaleak izan ezik.

Bisita bereziak izaten dituzue?
Batzuetan abestera eta dantzatzera etortzen dira, Nagusilanetik batez ere. Haurren emanaldiak izaten ditugu noizean behin. Gainera, auzotik paseatzera ateratzen gara, eta beste irteera batzuk ere egiten ditugu.